

SL-NA ARATXURI

I.I.D.E.: .

Belate – Ermitako lepoa (Urdanbidegi) – Santa Maria – Aratzuri - Belate

Luzeera: 1,950 / 3,215 km Desnibela: 50 / 150 mt Zailtasuna: ERREZA

Aurrehistoriatik Belate garrantziko pasagunea izan da: megalitoak lekuko, larreak eta metalak aprobetxatzeko; erromanizazioan, Iruñatik (Pompaelo) Galias-erako bidea; Erdi Aroan, Santiagoko erromesen pasagunea; XIX mende arte, Nafarroako Erresumako portu nagusia zen Baionarako bidea. Denek, errepideak ezik, egun babestua dagoen zohikaztegia edo padura sahiestu dute. Gaur, azpitik zeharkatzen duen 3 km-tako tunelak lasaitasuna itzuli du Belatera.

IRTEERA > Belateko Gaina, NA-1210 errepideko 3,6 p.k.-an; bertara iristeko Almandoz edo Arraitzko Bentan N-121 errepidetik desbideratu (“Belate” norabidea). Almandoztik etorrira, ezkerrean, aparkaleku moduko zabalgunea; eskuinean plubiometro bat bada. Babesgune eta ostalaritza zerbitzurik ez (gertuena, 1 km-ra, Ultzamako Bentan).

OHARRAK

- Luzeera / Desnibela: ibilbideak 2 km luze eta 50 mt desnibela badu ere, Ermitako lepoko megalitoak ikusteko deribazioa bat egin behar da Belateko kaltzadatik (GR12 eta Santiagoko Bideko seinalizazioa). Guztira: 3,215 km.
- Zohikaztegia edo padura (2,125 km): leku lohitsuak, lurraren hezetasuna dela eta berezko ekosistema garatu dutena. Belateko Gainean, errepidearen bertze aldean, zohikaztegi haundia aurkitzen da; gune hauek babestuak daude Belateko GKT-LIC barruan (Garrantzi Komunitarioko Tokia).

DESKRIBAPENA

0,000 km: **BELATE** (820 mt), NA-1210 errepideko 3,6 p.k.-an. Aparkalekua eta plubiometroa. GR 12 “Euskal Herriko Bidea”ren pasagunea: eskuinetik (M.>) eta plubiometrotik, Gorostieta aldera; ezkerretik (E.>), Artesiagarako pista. Azken honetatik abiatu (E.>), balangoa pasa eta pagadian sartu; metro gutxira, eskuinetik, itzultzeko bidea agertzen da. Pista mantendu eta basotik atera; Aratzuriko erreka (edo Ultzama) bailarako ikuspegia.

0,910 km: Belateko kaltzada (850 mt) eta Santiagoko Bidearekin lotura (gezi horiez baliztua). Bifurkazioa: zuzenean (E.>), kaltzada Sta Maria ermitara (ibilbide nagusia eta Santiagokoa). Ezkerretik igo (I.>), kaltzadatik mendi larretan barna eta GR 12 eta Santiagoko Bidea segituz (ERNE: hau Ermitako lepoko megalitoak bisitatzeko SL balizarik gabeko deribazioa da).

1,410 km: **ERMITAKO LEPOA** (915 mt) edo Urdanbidegi, zabala eta belartsua. Ultzama eta Baztango mugako balangoa. Leku izena bertan izan zen ermitatik dator, gaur egun eroria. Bidegurutzea: zuzen (I.>), Santiagoko Bideko kaltzada, zutarrari moduko harlauzez seinalizaturik; eskuineko pistatik (E.>), Artesiagara (GR 12). Gune megalitikoak: bi harrespil, hiru tumulu eta, metro batzutura ezkerretik, zutarrari bat (*IKUS: 580-585 fitxak*). Bide beretik itzuli.

1,910 km: Ermitako bidegurutzan berriz (850 mt), ezkerrean jo (E.>) eta kaltzadatik jeitsi, belagia mugatzen duen harresiaren ondotik.

2,075 km: SANTA MARIA ERMITA (810 mt), ezkerrean. Santiagoko errromesen pausagunea; egun Ultzamako herrietatik erromeria egiten da. Behiti segi bertze 50 mt, eta Aratzuri erreka zubi pasatu baino lehen, Santiagoko Bidea utzi eta eskuineko bidexkatik jo (M.>), zohikaztegi edo padura bat zeharkatu. Errekaren eskuineko bazterretik tarte ospela, pagadian barna.

2,675 km: Harritzar haundia. Errekaren bazterra utzi eta eskuinera (I.M.>) igo.

2,900 km: Zelaigunea. Errekaxo bat zeharkatu eta 30 mt aurrerago, eskuineko malda apaletik igo. Bukaeran etortzeko pistarekin bat egin, bertatik azkeneko metroak eginez.

3,215 km: BELATE (820 mt), NA-1210 errepideko 3,6 km p.k.-an. Aparkalekuko zabalgunea. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.

PR-NA 6 ARITZAKUN

I.I.D.E.: _____.

Luruko Atekak– Antsastegi– Aritzakun– Minetako Zokoa– Bagoi– Luruko Atekak

Luzeera: 13,800 km

Desnibela: 600 mt

Zailtasuna: ERTAINA

Aritzakungo urak ez dira Baztan-Bidasora isurtzen, Errobira baizik (Behenafarroan). Isolamendu hau ez da oztopoa izan, ordea, bertan “Napoleonen Bidea” eta erromatarren garaiko mehategiak izateko. Ibilbidean Lapurdiko kostaldeko ikuspegiak eta Aritzakungo errekaen gardetasuna gozatuko ditugu; bukaeran igoera bizia Bagoiko mendi bizkarreraino. Eskozko eta Antsastegiko lepoen artean hainbat monumentu megalitiko bisitatzeko ahal dira (ikus bukaera).

IRTEERA > Luruko Atekak edo lepoa, Otsondoko gainera Gorrarendira doan NA-2655 errepideko 3. p.k.-an. Mendi bizkarra eta zabalgunea, aparkaleku modura; bertan babesgune eta ostalaritza zerbitzurik ez.

OHARRAK

- Ibilbidearen desnibelik haundiena (260 mt, bataz berteko %20 pendentearekin) bukaeran dago (10,450 km-an).
- BIDE MEGALITIKOA: Antsastegi (hasieran) eta Eskozko (bukaeran) lepoen artean 2,2 km-tako tarte megalitiko (ikus bukaera: BIDE MEGALITIKOA).

DESKRIBAPENA

0,000 km: LURUKO ATEKAK GAINA (665 mt), edo Ohoinzilota. Ezkerraldean, aparkaleku moduko zabalgunea; haren azpian, XX. mendearen erdialdean ipar amerikar ejerzitoaren eraikuntzen hondakinak. Errepidetik Otsondo aldera (I.M.>) abiatu; eskuinean etxetxo bat.

0,210 km: Mehategien aztarnak (“atekak”) pasatu eta gero, bifurkazioa: Otsondoko errepidea utzi eta Burkaitzea eta Lezeta bentetara doan eskuineko pistatik igo (I.>). “Napoleonen Bidea” dugu hau, Independentziako Gerlan (XIX mendean) ejerzito frantsesa bertatik erretiratu zelako.

0,480 km: Aizalegiko lepoa, pista nagusiak zeharkaturik. Eskuinean (H.E.>), 130 mt-ra, Larrakagaina edo Aizalegiko harrespila dago (IKUS: 129 fitxa). Pistan berriz, borda baten ondotik pasa; iturria.

1,050 km: Bifurkazioa. Eskuinetik, ohianeko pista; ezkerretik segi, pista nagusitik.

1,215 km: Antsastegiko lepoa (715 mt) eta bidegurutzeta: zuzen, pista nagusia bizkarraren bertze aldera; ezkerretik (M.>), eta mendi bizkarrean gora, Antsastegi edo Meatzetako megalitoak (IKUS: 130 eta 132 fitxak). Eskuinera jo (E.>), bizkarreko bide zabaletik eta zerrakura baten ondotik; 125 mt aurrerago, balango bat zeharkatu eta ezkerretik jeitsi (I.>), Antsastegi mendia iparraldeko magaletik inguratuz. Bidexka batzutan ez da oso argia; altura mantendu, beti pista nagusiaren gainera eta pago bakan batzuetan barna. Lapurdiko kostaldeko ikuspegiak.

2,100 km: BURDIAKO BIZKARRA (680 mt), zabal eta belartsua; Burdiako lepoa 200 mt aurrerago dago. Ehizi postuak eta, ezkerrean, bunker bat. Orain arte nagusia izan diren mendi larreak eta bizkarra zeharkatu eta erreka zokotik jeitsi (I.E.>). Berehala errekatxo pasa eta haren ezkerretik segi, gero eta argiagoa den bidexkatik.

2,810 km: Pagadi txiki batean sartu eta Lizartzuko erreka zeharkatu (565 mt). Basotik atera eta tarte zelaia, ote eta larreen artean, erreka zokoaren gainetik.

3,450 km: Pista, Iruingo borda baserrira. Bertatik jeitsi (I.>), pagadian sartuz.

3,710 km: Iruingo borda baserria (510 mt), mendi magalean, Aritzakungo ikuspegi ederrak. Etxearen atzetik segitu, belagia mugatzen duen harresiaren ondoko bide zelaitik.

3,900 km: Bihurgunea eskuinera, belagiko harresiaren ondotik jeitsiz. Bideak bertze bihurgune bat ezkerrean egin eta erreka zeharkatzen du, urritza, haritz eta gaztainondoan artean.

4,475 km: Mendi bizkarra eta sasi lepoa (490 mt). Bertze aldetik jeitsi eta 50 mt-ra, bifurkazioa: zuzenean (H.>) eta bizkarretik, Aritzakunera (> km. 7,390). Ezkerretik jeitsi (E.>), magaletik.

4,780 km: Iñabideko ardiborda, eskuinean. Magaleko bidexkatik segi, baso mixto eta belagien artean, hainbat errekatxo zeharkatuz.

5,650 km: Baserri abandonatua (360 mt) eta Pierretako erreka; zeharkatu. Ezkerretik (I.>), Burkaitzeko bentako bidearekin bat egin eta eskuinetik jeitsi (H.>). Erreka zokoko bidexka, haritz, gaztainondo zahar eta gorosti ederretan barna. Errekatxo bat zeharkatuko da.

6,510 km: Aritzakungo erreka zokoa eta ibilbidearen punturik bajuena (295 mt). Bidegurutzea: ezkerretik (E.>), Sumusuko borda eta pista nagusira; eskuinera jo (H.>), erreka zubi trakets batetik zeharkatuz.

6,775 km: Maribeltzenea edo Arraxka baserria, Aritzakungo erreka ondoan. Zuzen segi, ogilabea zenaren ondotik. Bide zabala, magaleko basoa eta harresiz mugatutako belagien artean.

7,100 km: Padura gunea eta errekatxoa; egurrezko zubitxotik zeharkatu.

7,270 km: Ezkerretik, pista nagusitik datorren zubia. Zuzen segi, 50 mt aurrerago Zelaiko borda baserriaren aurretik pasatuz.

7,390 km: Bidegurutzea, erreka pasa eta gero. Eskuinetik (I.M.>), Iruingo borda baserrirako bidexka (> km 4,525). Norabide nagusia mantendu (H.M.>), bailaran zehar.

7,550 km: Kisulabea, ARITZAKUNGO FRONTOIA ETA ESKOLA (330 mt), gaur egun elkarte. Atsedean gunea eta haritz ederrak. Zuzen segi, erreka ondoko bide zaharretik.

7,850 km: Zementozko zubitik erreka pasa eta gero, Aritzakungo pista (335 mt). Bertatik igo 50 mt bidegurutze bateraino; pista utzi eta ezkerretik igo (H.>), haritzen artean. Bidea hestutuz doa, harri mukurua haundien artean: Minetako Zokoan gaude, erromatarren garaiko urre mehategiak, "ruina montium" teknika erabiliz, mendia zulatu (hortik harri pilak) eta hondatuz.

8,550 km: Ezkerrean, haritz haundia, azpitik zulatua eta gurutzea duena. Inguru hezea eta, eguraldi txarrarekin, oso irristakorra.

8,750 km: Minetako iturria ("Fuente intermitente"). Metro gutxitara erreka zeharkatu eta bidexkatik malda gora egin, erreka zokotik eta basotik ateratzen. Bide zabala, harresiz mugatutako belagien artean.

9,055 km: Arroseneko borda baserria (470 mt), harresiz itxitako belagien artean. Zuzen segi (H.>) eta 140 mt aurrerago, ezkerretik datorren bide zabalarekin elkartu. Norabidea mantendu.

9,600 km: Aritzakungo pista nagusia, zementatua. Bertatik igo, ezkerretik.

10,135 km: Kanttaneko borda baserria (520 mt); 100 mt-ko tarte zelaia eta bidegurutzea: pista nagusia utzi eta eskuineko bidetik (M.>) jeitsi, belagien harresiaren ondotik eta basoan sartuz.

10,450 km: Erreka (490 mt). Zeharkatu eta malda gora bizia hasi, bidexkatik, hasieran basotik eta gero iralekuetan barna.

10,920 km: Otsagazteluko ardiborda (630 mt), mendi magalean eta arbolez inguratua. Bidea zabaldu eta, zigi-zaga eginez, mendi bizkarrera igotzen da. Iralekuetan barna segitu (H.>).

11,750 km: Militar instalakuntzen hondakinak (750 mt) eta NA-2655 Gorramendiko errepidea. Bertatik segi, eskuinera (I.>), Bagoi mendiaren magaletik.

12,015 km: Errepidea utzi eta ezkerreko bidexkatik igo. Ehun metrora, padura txiki bat pasatu ondoren, mendi bizkarra eta hesitura baten kantoia (765 mt), Aritzakun eta inguruko mendien ikuspegi zabalarekin. Norabidea (I.M.>) eta altuera mantenduz, bizkarra zeharkatu eta pagadia mugatzen duen bide zabaletik jeitsi. Ehizi postuak agertuko dira.

12,445 km: Ezkerretik pista batekin elkartu eta gero, mendi bizkarra eta errepidea (metro gutxira 5 p.k. eta ardiborda). Ezkerrera jeitsi (M.>), bidexkatik eta bordako belagiaren ondotik.

12,755 km: Eskozko lepoa (650 mt.) eta errepidearen 4 p.k.. Bertatik 60 mt. egin eta ezkerreko bidexkatik igo, magaletik.

12,960 km: Sasi lepoa (670 mt.), Urlegi mendiko hegoaldeko bizkarrean. Bertan harrespila eta zutarri etzana (*IKUS: 115 eta 116 fitxak*). Mendi kaskoa inguratu, beti errepidearen gainetik eta oso argia ez den bidexkatik.

13,325 km: Urlegi mendiko iparraldeko bizkarra (675 mt) eta ehizi postua. Tumulua eta harrespila (*IKUS: 118 eta 119 fitxak*). Bizkarretik jeitsi, errepideruntz.

13,425 km: Urlegiko lepoa (655 mt.) eta errepidea. Gurutzatu, 7 harrespilek osaturiko gune megalitikoa zeharkatuz (*IKUS: 120-126 fitxak*). Mendi bizkarra mantendu, errepidea eta ehizi postuen artean; 100 mt aurrerago, ezkerrean, zutarri etzana dago (*IKUS: 127 fitxa*).

13,665 km: Bide zabala; ezkerretik segitu. Beheko magalean, XX. mendearen erdialdean ipar amerikar ejerzitoaren eraikuntzen hondakinak.

13,850 km: LURUKO ATEKAK GAINA (665 mt), edo Ohoinzilota. Aparkaleku moduko zabalgunea. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.

BIDE MEGALITIKOA

Luzeera: 4,515 km

Desnibela: 120 mt

Zailtasuna: ERREZA

Aritzakun PR-NA 6 ibilbidearen hasiera eta bukaerako tartek elkartuz Antsestegi eta Urlegiko gune megalitikoak bisitatzen ahal dira, ”8” formako ibilaldi bat eginez eta “Napoleonen Bidea” (pista) eta NA-2655 errepidea ardatz hartuta. Bukaeran Maistrugain-Gorramendiko gunea bisitatzen da. ERNE: bide guztia ez dago balizatua, PR-aren tartea baizik.

0,000 km: LURUKO ATEKAK GAINA (665 mt), edo Ohoinzilota. Ezkerraldean, aparkaleku moduko zabalgunea; haren azpian, XX. mendearen erdialdean ipar amerikar ejerzitoaren eraikuntza eroriak. Errepidetik Otsondo aldera (I.M.>) abiatu; eskuinean etxetxo bat.

0,210 km: Mehategien aztarnak (“atekak”) pasatu eta gero, bifurkazioa: ezkerretik, Otsondoko errepidea; eskuineko pista zabaletik igo (I.>). Bide hau “Napoleonen Bidea” izenarekin ezagutzen da, Indenpendentziako Gerlan (XIX mendearen hasieran) ejerzito frantsesa bertatik erretiratu zelakoz.

0,480 km: Aizalegiko lepoa, pista nagusiak zeharkaturik. Eskuinean (H.E.>), 130 mt-ra, Larrakagaina edo Aizalegiko harrespila dago (*IKUS: 129 fitxa*). Pistan berriz, borda baten ondotik pasa; iturria.

1,050 km: Bifurkazioa. Eskuinetik, ohianeko pista; ezkerretik segi, pista nagusitik.

1,215 km: ANTSESTEGIKO LEPOA (715 mt). Balizatutako tartearen bukaera: PR-a eta pista nagusia utzi eta ezkerredera jo (M.>) mendi bizkar eta larretan barna igotzeko.

1,360 km: Mendi kaskoa (735 mt) eta Aizalegi-Goizamendiko harrespila (*IKUS: 132 fitxa*). Lapurdiko kostaldea eta Aritzakungo bailarako ikuspegia. Bizkarretik segi (Mehatzeta edo Kaskolarrutuko bizkarra), lepo bat pasa (715 mt) eta berriz gora egin.

1,720 km: Aizalegiko harrespila (*IKUS: 130 fitxa*), mendi bizkarrean. Ia 100 mt aurrerago Aizalegi edo Artxisuri mendi kaskoa dago (737 mt). Bertara igo edo mendi magaletik segitzen ahal da. Edozein kasutan, ezker aldera (H.>) jeitsi behar da, begibistan diren pista eta lepora.

2,095 km: Aizalegiko lepoa (687 mt) eta pista. Etortzeko ibilbide balizatu beretik itzuli.

2,575 km: Luruko Atekak (665 mt). Errepidea utzi eta ezkerredera jo, bide zabal eta zelaian barna, eta PR ibilbidea mantenduz.

2,760 km: Bide zabala utzi eta eskuinera jo, iralekuan barna jeisteko; 150 mt-ra, Urlegiko zutarri etzana (*IKUS: 127 fitxa*). Norabidea mantendu, errepidea eta ehizi postuen artean.

2,980 km: URLEGIKO GUNE MEGALITIKOA (665 mt), 7 harrespilek osatua (*IKUS: 120-126 fitxak*). Errepidea zeharkatu eta bizkarrean gora, ehizi postuen lerroa segituz.

3,090 km: Urlegiko ipar bizkarra (675 mt), tumulua eta harrespila (*IKUS: 118-119 fitxak*). Ehizi postu baten azpitik tontorra inguratzen duen bidexka, ezkerretik. Azpian, itzultzeko errepidea.

3,470 km: Sasi lepoa (670 mt), Urlegiko hego bizkarrean. Harrespila eta zutarri etzana (*IKUS: 115 eta 116 fitxak*). Mendi magaleko bidexkatik jeitsi, eskuinean muino bat utzirik.

3,685 km: Eskozko lepoa (650 mt.) eta errepidea (4 p.k.-tik gertu). Bertatik itzuli, Urlegiko lepoan barna. Errepidearen tarte hau ez dago balizatua.

4,515 km: LURUKO ATEKAK GAINA (665 mt), edo Ohoinzilota. Aparkaleku moduko zabalgunea. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.

MAISTRUGAIN-GORRAMENDI

MAISTRUGAIN

Gorramendiko NA-2655 errepidea segituz, 9. p.k.-an mahai panoramika bat dago. Errepidearen 10. p.k.-ra ailegatu baino lehen, ezkerrean eta errekatxo baten ondoan, Maistrugaingo lepora igotzen den bidexka hasten da (960 mt.). Mendi magaletik igo (M.>), erreka zeharkatu eta bizkarrera ailegatu (0,120 km); eskuinean, igelak babesteko putzua eta bertze aldean, zutarri etzana dago (*IKUS: 184 fitxa*). Bizkarrean behera (H.>), mendi larretan eta bide zehatzik gabe, Maistrugaingo gune megalitikoa dago; 19 harrespilek osatzen dute (*IKUS: 166-183 fitxa*) eta Aizpitxa mendiaren azpiko leporaino (945 mt) zabaltzen da.

Distantzia osoa: 0,410 km. Itzulia bide beretik edo gertu dagoen errepidetik.

GORRAMENDI

Errepide bereko 10,300 p.k.-an, eskuinetik jeitsi (H.E.>) eta 300 mt-ra, Gorramendiko harrespila (*IKUS: 189 fitxa*) aurkitzen da.

Errepide beretik segi eta metro gutxira bide bifurkazioa: ezkerretik segi (errepide nagusia) eta 400 mt-ra, Otararteko lepoa pasa eta gero, errepidearen ezker aldean, Gorramendiko zutarria (*IKUS: 190 fitxa*) aurkitzen da.

SL-NA BASABAR

I.I.D.E.: .

Beartzun (koartela) – Basabar – Arlegi – Munautz – Basabar - Beartzun

Luzeera: 7,630 km

Desnibela: 425 mt

Zailtasuna: ERTAINA

Basabarren Baztango trikuharririk ederrenetarikoak aurkitzen dira. Beartzundik atera eta leporainoko igoera maldatsua egin ondoren, deribazio baten bidez Burgako megalitoak bisitatzeko ahal dira. Inārbegi eta Beartzungo bailarak mugatzen dituen bizkarrean trikuharri haundiak eta ikuspegi ederrak gozatu ondotik, mendi magalean, ohianean eta harrien artean, altxor preziatua zain dugu: Munautzeko trikuharria.

IRTEERA > Beartzun auzoa, Elizondotik 6 km-tara, NA-2596 errepidetik. Hau bukatu eta asfaltu hondatutako bidetik (“Gamioko borda” landa etxeko norabidean) kilometro beteko zigizaga egin, Guardia Zibilaren koartel zaharra (eroria) eta Alka baserrira iritsi arte. Zelai gunea, aparkaleku modura; ez dago ostalaritza zerbitzurik.

OHARRAK

- Arlegiko magaleko bidexka (3,100 km-an) ez da oso argia eta iralekuan galtzen da (100 mt).
- Munautzeko trikuharria magal harritsu batean dago, biderik gabe. Azkeneko tartean kasu haundiz ibili.
- Basabarko lepoan Beartzun PR-NA 3 ibilbidea gurutzatu behar da. Erne seinalizazioarekin.

DESKRIBAPENA

0,000 km: BEARTZUN, Alka baserria (485 mt) eta zelaigune belartsua, aparkaleku modura. Aurrean, kontrabandoa eta Baztango muga kontrolatzeko eraikin zen koartelaren hondakinak. Bidegurutzea: ezkerretik (I.M.>), Maisterrenea baserrira eta Irlintzira (PR-NA 3 Beartzun). Pista nagusitik abiatu (I.E.>), kuartelaren aurretik pasatuz. Ehun metro aurrerago, bi bidegurutze segidan: lehenengoan, zuzen segi, eskuinean bide zelai zementatua utziz; eta 50 mt geroxeago, pista nagusia laburtzen duen bidexkatik zuzen igo.

0,300 km: Pista berriz hartu eta bidegurutzea: ezkerretik, Gamioko borda Landa Etxerako pista. Eskuinetik igo (I.E.>), zementozko bide maldatsutik; metro batzutara erreka eta aska zeharkatu.

0,730 km: Xondonea baserria (555 mt), mendi magalean. Iritsi baino lehen, bidegurutzea: baserriko bidea utzi eta ezkerrean jo (I.E.>), haritz zaharretan barna eta malda gora pikuan.

1,435 km: BASABARKO LEPOA (688 mt), Beartzundik Inārbegirako pistak zeharkatua. Bide balizatuen elkargunea: pistatik ezkerrean (M.>), Beartzun eta Irlintzira (PR-NA 3 ibilbidea); eskuinetik (H.E.>), Basabarko borda eta Berderitzko bidea (PR-NA 3); eskuin aldetik ere (E.>), mendi bizkarretik igotzen den bidea (SL-aren norabide nagusia). Ezkerrean jo (I.M.>), Burgako megalitoetara doan deribazioa: pista bat itxitura baten ondotik; 50 mt-ra, pista utzi eta ezkerreko bidetik igo, mendi bizkarra segituz, ote eta mendi larretan barna.

1,570 km: Bidearen ondoan, argi postea. Ezkerretik 30 mt-ra Basabarko zutarri etzana dago (IKUS: 279 fitxa), harrobitik atera gabe. Bidera itzuli eta bizkarretik igo.

1,835 km: Burgako trikuharria (750 mt), bidearen ezkerrean (IKUS: 280 fitxa). Etortzeko bidetik Basabarrera itzuli.

2,265 km: BASABARKO LEPOA (688 mt). Pista nagusia zeharkatu eta zuzen segi (E.>), mendi bizkarrean gora; eskuinean, Berderitz lepoko bide zelaia (PR-NA 3) eta Basabarko borda geratzen dira. Bidea traktore markakin, pagadia beti ezkerrean utziz.

2,570 km: Malda bukatu (725 mt) eta Lamizilo trikuharria (IKUS: 270 fitxa). Larrametseko bizkar honetan 2 trikuharrik, 4 tumuluk eta harrespil batek osaturiko gune megalitikoak aurkitzen da: mendi bizkarra zuzen segitu edo pagadiaren mugatik doan bidetik jo, tarteka eskuinera desbideratuz; 75 mt aurrerago Lamiziloko tumuluak (IKUS: 271 eta 272-274 fitxak) daude.

2,785 km: Lepoa eta pagadia. Bidearen ezkerrean, Errolan-eko harrespila (IKUS: 276 fitxa) eta 10 mt aurrerago eskuinean, Errolan-eko trikuharria (IKUS: 275 fitxa). Pagadian barna segitu.

2,900 km: Burdimixko lepoa (725 mt). Bide nagusiak eskuinera utzi eta mendi bizkarreko bidexkatik zuzen igo (E.>), hasieran pagaditik eta gero iralekuan barna (Erne: udan bidexka iralekuan galtzen da 100 mt-an; bizkarra mantendu).

3,195 km: Lehengo bidearekin konfluentzia, iralekuan eta elorri zuri baten ondoan. Ezkerretik igo (E.>), Arlegiko bizkar zabal eta belartsuan barna; metro gutxi barru, tarte zelaia eta malda behera apala hasten da. Ezkerrean Errolanen Harriak geratzen dira.

3,620 km: Lepoa (795 mt) eta harresi eroria, eskuinean; 80 metro aurrerago, ibilbidearen ardatza izan den bizkarra utzi eta ezkerreko magaletik jeitsi, pagadian barnako bidexkatik. Malda behera lasaia, egur ikatza egiteko plazak gurutzatuz.

4,050 km: Munauzko erreka (775 mt) eta ubide hondatua, garai batean minerala ateratzekoa. Biak zeharkatu eta 60 mt-ako tarte zelaia egin, bide argirik ez eta harri lasoen gainetik; ohianeko zabalguneko batera iritsi eta eskuinetik igo (H.E.>) harlauzen artean.

4,200 km: MUNAUZKO TRIKUHARRIA (830 mt), mendi magalean (IKUS: 265 fitxa), harriz inguraturik eta pagadiaren erdian. Itzulia bide beretik, Basabarko lepoan barna (Erne: Arlegitik Burdimixko leporako jeitsieran -5,175 km- bide nagusia utzi eta eskuineko iralekutik jeitsi).

6,195 km: BASABARKO LEPOA (688 mt). Ezkerrean jo (M.>) hariztian barna. Jeitsiera zuzena ezkerreko harresiaren ondotik eta eskuinean Beartzungo pista utzita. Xondonea baserrietik, bide zabala eta zementatua.

7,630 km: BEARTZUN (485 mt), koartela eta Alka baserria; aparkaleku moduko zelaigunea. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.

PR-NA 4 BAZTANGOIZA

I.I.D.E.:

Arizkun– Apaioa– Azpilkueta– Urrasun– Amaiur– San Migel (Bozate)– Arizkun

Luzeera: 12,215 km

Desnibela: 350 mt

Zailtasuna: ERREZA

Baztangoiza koarteleko (Baztango eskualde tradizionala, Elizondoa, Erbera eta Basaburuarekin batera) ibilaldia, herri eta auzotan barrena; bide errezak, batzutan zementatuak, belagi eta hariztien artean, hainbat tartetan Baionatik Iruñeara doan Santiagoko Bidearekin bat eginez. Arkitektura zibil eta erlijioso aberatsaren adierazle, bidean zehar hainbat jauregi eta nekazal etxalde eder, ermita eta herriko elizak agertuko zaizkigu.

IRTEERA > Arizkun, Herriko Plaza. Herrigunean eta inguruan hainbat ostatu, jatetxe eta alojamentu badago.

OHARRAK

- N-121 B errepidea Arizkun eta Amaiurko sarrerako bidegurutzetan zeharkatu behar da. Halaxe, Bozate inguruan NA-2600 errepidetik tarte bat egin behar da, arzenik gabe.
- Arizkongo irteeran, Urrasun auzoan eta Amaiurtik Arizkunerako tartean Santiagoko Bidea segituko da (gezi horiez seinalizatua).
- Laburtzeko alternatiba: Urrasundik Arizkunerako, Baztango Santiagoko Bidea segituz, bada ibilbidea laburtzea, 3 km gutxiago, PR bezala balizatua ere.

DESKRIBAPENA

0,000 km: ARIZKUN (280 mt), Herriko Plaza. NA-2061 errepidetik, Elizondoko norabidean (H.M.>), herritik atera. Santiagoko Bideko tarte.

0,430 km: Bidegurutzea. Ezkerrean errepidea eta Santiagoko Bidea utzi eta eskuinera jo (M.>), kanposantuko bide asfaltatutik; 100 mt aurrerago, bide nagusia utzi eta ezkerretik jeitsi (H.M.>), basoa eta belagia mugatzen duen bidetik. Tarte kaltzatua 200 mt-an zehar, NA-2061 errepidera berriz ailegatu arte. Bertatik jeitsi.

0,915 km: “Laurentx” Benta (240 mt), eskuinean. N-121 B errepidea zeharkatu eta zuzen segi (M.>), Baztan erreka harrizko zubi eder batetik gaintuz.

1,055 km: Arozteneko B^a baserria eta bifurkazioa; eskuineko bide zementatutik igo (I.M.>). Ehun metro aurrerago zerrategi bat eskuinean utzi; zementoa bukatu eta bidea bailara txiki eta babestu batetik igotzen da.

2,055 km: Elizantzena etxea (Landa Etxea). Bide nagusia utzi eta haren gainetik igo, otea nagusi den malda pikutik. Baztangoizako ikuspegi zabalak.

2,550 km: Mugertzako bizkarra (395 mt) eta harizti ederra. Eskuinera jo (I.M.>), bizkarreko bide zabaletik jeitsiz; 300 mt aurrerago, ezkerrean, bertze Landa Etxe bat.

3,325 km: Karakotzeko B^a (Landa Etxea) eta lepoa (345 mt), harlauzez mugatutako belagiek inguratutik. Handik 150 mtra, Bergarako bide zementatuarekin bat egin eta bertatik igo.

3,680 km: APAIOA AUZOA (380 mt), magaleko zelaigune batean kokaturik. Etxe ederrak, herri arkitekturaren eredu ikusgarri. San Franzisko ermita eta iturria; bertatik eskuinera jo (E.>), bi etxeen arteko balangoa pasa eta harlauzezko bidexka batetik belagi bat zeharkatu. Magalez magal eta erreka zokoetan barna Azpilkuetako auzoak zeharkatuko dira, Amaiurreraino.

3,910 km: Harrizko zubia eta bide zementatua. Bertatik igo, eskuinera.

4,155 km: Azpilkueta (375 mt), herriko goiko aldea eta eskola. Eskuinean, Jaso familiaren Jauregia (San Franzisko Xabierrena). Karrika Nagusitik jeitsi.

4,390 km: AZPILKUETA (355 mt), San Andres eliza eta frontoia. Haien azpian, bifurkazioa: errepidea utzi eta ezkerretik jeitsi (E.>), tarte kaltzatuak dituen bidetik; 100 mt aurrerago, eskuinetik segi.

4,640 km: Harrizko zubia (320 mt) eta errota eroria, ezkerrean. Zuzen segi, bide zabaletik.

4,875 km: Pista zementatua eta bidegurutzua: eskuinetik, Arribiltoa auzora. Ezkerretik segi, harizti batetan sartu eta 60 mt aurrerago, bide bifurkazioa: ezkerretik igo, bide zementatutik.

5,165 km: Azkarbeko ardiborda (345 mt), ezkerrean. Pista zementatua utzi eta eskuinetik segi (I.E.>), hariztitik ateratzen. Bideak, maldan behera apalean, harresiz mugatutako belagi bat inguratu eta gero basoan sartzen da, errekatxo bat zeharkatuz.

5,725 km: Belagien artean ibili ondoren, Zuaztoiko sarrera aldapatsua, Larregia etxe ondotik.

5,875 km: ZUAZTOI AUZOA (320 mt), Indaburua etxea eta bidegurutzua: auzoko errepide nagusia zeharkatu eta zuzen segi (I.E.>), bide zelai eta zementatua barrena. Baztangoizako ikuspegi zabala.

6,150 km: Bifurkazioa; eskuineko bide zementatutik jeitsi. Berrehun metro aurrerago, Xolborro etxea; lur eta harrizko bidetik segi errekaraino, harlauzazko zubitik zeharkatzen dena.

6,725 km: URRASUN (290 mt), Santiagoko ermita eta errepidea. Bidegurutzua: eskuinetik (H.>), karrika bakarra eta Santiagoko Bidea, Arizkunera (ikusitako bukaeran "Urrasun-Arizkun tartea"). Ezkerretik segi (I.>), errepidetik eta 100 metrora, asfaltoa utzi eta ezkerreko bide zementatutik (I.>) igo, haritzen artean, Santiagoko Bidea deseginez.

7,030 km: Bide zementatua utzi eta eskuineko balangoa pasa, belagi bat zeharkatzeko. Metro batzutura, bide bazterreko harlauzek eta zolako kaltzadak bere garrantzia adierazten dute: Iruñea eta Baiona, XIX mende arte Nafarroako portua, elkartzen zituen bide nagusia.

7,620 km: N-121 B errepidea eta errotonda, Amaiurko sarreran. Zeharkatu eta Jauregia eta "Katea" etxeen ondotik (garai batean herriko muga edo sarrera) herrian sartu.

8,275 km: AMAIUR (285 mt), herriko beheko aldea. Eliza, errota, iturria eta gurutzua, Karrika Nagusiaren bukaeran. Hemen Otsondotik datorren Santiagoko Bidea banatzen da: Urrasunera (M.>), orain arteko bidetik; eta San Migel-Bozatera (E.>). Azken honetatik segi, herrigunea ezkerrean utzita (I.>). Bide zabal eta zelaia, belagietan barna (erne, euriarekin maiz lohitzten da).

8,925 km: Kisuko borda etxea. Zuzen segi (H.>), balango bat zeharkatuz.

9,325 km: Kisuko zubia. Eskuinean, kisulabe baten arrastoa. Bideak gora egiten du, zigi-zaga eginez.

9,950 km: Bidegurutzua. Zuzen segi, bide zelaitik (H.>).

10,185 km: San Migel ermita (315 mt), bidearen ezker aldean. Bertatik, Bozate auzora (E.>). Bide nagusitik segi (M.>), gertu dagoen “Lizardiko borda” landa etxetik.

10,895 km: Urtsuko Jauregia-Dorra, Erdi Aroko eraikuntza sendoa, eta Santa Ana ermita. Bide asfaltatutik jeitsi.

11,125 km: Erratzuko NA-2600 errepidea, arzenik gabea; eskuinetik segi (H.>), Lamiarrita jauregiaren ondotik. Ehun metro aurrerago, bifurkazioan, ezkerreko errepidetik segi, “laxoa” pilota jokorako plaza baten ondotik pasatuz. Baztan erreka zeharkatu.

11,450 km: Bifurkazioa; Arizkungo errepidea utzi eta ezkerretik igo, bide zabaletik. Handik 250 mtra, Erratzutik datorren bidearekin elkartu eta eskuinera jo (M.>), Arizkunen goiko aldeko etxeetatik sartuz (Zapata haroztegia). Karrika Nagusia zeharkatu, herri arkitektura aberatsa erakusten duten etxe eder, San Juan eliza eta Klarisen konbentoaren artean.

12,215 km: ARIZKUN (280 mt), Herriko Plaza. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.

URRASUN-ARIZKUN TARTEA

Urrasundik bada Arizkunera ibilbidea 3 km laburtzea, Santiagoko Bidea Ordoki auzoan barna segituz.

6,725 km: URRASUN (290 mt), bizkar batean kokaturik. Santiagoko ermita eta bidegurutzeta: ezkerretik (I.>), Amaiurrera. Eskuinetik segi (H.>), auzoko karrika bakarra eta Santiagoko Bidean barna.

7,080 km: Bifurkazioa. Eskuinetik segi (H.>), bidexkatik, eremu pribatua mugatzen duen pareta baten ondotik. Iralekua eta hurritzen arteko tartea.

7,965 km: Jeitsiera labur baten ondotik, harlauzazko zubia eta Zuaztoi auzoko bide asfaltatua. Metro gutxira Azpilkuetara doan NA-4457 errepidearekin elkartu eta ezkerreko jo (E.>), Amaiurko erreka zeharkatuz.

8,025 km: N-121 B errepidea gurutzatu eta Erratzuko NA-2600 errepidetik segi 80 mtan zehar. Ordoki industrialdea: eskuinera jo (H.>), pabiloien artean.

8,405 km: Berroko zubia (240 mt), harrizkoa eta Baztan erreka gainean. Bertan Arizkunera igotzen den kaltetan zabal eta ederra hasten da, belagien artean.

8,990 km: Arizkungo sarrera, NA-2061 errepidea. Bertatik eta herriko frontoiaren ondotik.

9,185 km: ARIZKUN (280 mt), Herriko Plaza. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.

PR-NA 3 BEARTZUN

I.I.D.E.:

Beartzun - Belaun – Zarkindeggi – Berderitz - Basabar – Irlintzi - Beartzun

Luzeera: 13,050 km

Desnibela: 525 mt

Zailtasuna: ERTAINA

Baztan eta Baigorri (Behenafarroa) bailaren arteko mugan kokaturik, Elizondoko Beartzun auzoa mendiz inguraturik dago. Garai batean bi bailaren arteko hainbat kontrabando pasadizoren lekuko izan ziren Belaun, Berderitz eta Basabar lepoek eta Zarkindegiko mendi bizkarrak ikuspegi ederrak eskeintzen dituzte. Halaxe, bizirik dirauen nekazal bizitza eta hainbat ondare megalitiko ikusteko aukera (ikus SL-NA Basabar ibilbidea) izanen da.

IRTEERA > Beartzun auzoa, Elizondotik 6 km-tara, NA-2596 errepidetik. Hau bukatu eta asfaltu hondatutako bidetik (“Gamioko borda” landa etxeko norabidean) kilometro beteko zigizaga egin, Guardia Zibilaren koartel zaharra (hondatua) eta Alka baserrira iritsi arte. Zelaigunea, aparkaleku modura; ez dago ostalaritza zerbitzurik.

OHARRAK

- Ibilbidearen hasieran eta Basabarko lepoan SL-NA Basabar ibilbidea gurutzatu behar eta Belaun eta Berderitz lepoan artean bertze ibilbideen seinalizazioa aurkituko dugu. Erne seinalizazioarekin.
- Hasierako tartea maldan beheakoa da (110 mt); hau saihesteko bada ibilbidea NA-2596 errepedearen 6 P.K.-an abiatzea, Beartzungo errekaaren ondoan.

DESKRIBAPENA

0,000 km: BEARTZUN, Alka baserria (485 mt) eta zelaigune belartsua, aparkaleku modura. Aurrean, kontrabandoa eta Baztango muga kontrolatzeko eraikin zen koartelaren hondakinak. Bidegurutzea: koartelek (I.E.>), Basabarko bidea (SL-NA Basabar ibilbidea). Ezkerrera jo (I.M.>) Maisterrenea baserriko bide zabaletik; 50 mt aurrerago, bide zabala utzi (PR-aren itzultzeko bidea) eta ezkerretik jeitsi (M.>), Beartzungo pista erdiasfaltatuaren zigizagak laburtzen dituen bidexkatik.

0,575 km: Goisemetseko erreka zeharkatu eta Jaimeneko B^a baserria (400 mt), pistaren azpian. Haren atzetik segi (M.>), belagiak mugatzen dituzten harresien artean; 300 mt aurrerago, auzoko eskola izandako etxera ailegatu baino lehen, bidea utzi eta ezkerretik jeitsi.

0,980 km: NA-2659 errepeidea (385 mt). Zuzen segi (H.>) eta 50 mt aurrerago, errepeidea utzi eta ezkerrera jo, Beartzungo erreka zubi batetik zeharkatuz. Igoera hasten da (H.E.>), bide zabal eta asfaltatua, harresi eta belagien artean, auzoko baserrietan barna; 450 mt aurrerago, azkeneko baserrian, asfaltoa bukatu eta bide zabaletik segi.

2,100 km: Telleriko lepoa (475 mt), Beartzundik igotzen diren hainbat bideren elkargunea; ezkerrean tellegi baten hondakinak. Eskuinetik igo (H.>), hasieran iralekuen artean eta gero pagadian barna, erreka zokotik; 1,2 km aurrerago Berakolako bordaren ondotik pasatuko da.

4,175 km: BELAUNGO LEPOA (760 mt), Aldude eta Baztango mugan; zabala eta belartsua. Bidegurutzea: aurrean (H.>), aska bat eta Aldudetik igotzen den pista; eskuinetik (H.M.>),

Argibel eta “Arrikulunka” (bide balizatua). Ezkerrera jo (I.E.>), mendi bizkarrean gora. Hainbat baliza hori eta laranja.

4,685 km: Bifurkazioa; eskuinetik, Zarkindegiko bizkarreko bidexka (baliza horiak). Ezkerretik segi eta pagaditik atera; mendia ezkerreko (M.) magaletik inguratu, larretan barna eta hasieran bidexkatik (baliza laranja). Ia kilometro bat aurrerago bideak elkartzen dira, ikuspegi aparta eskeintzen duen magalean.

5,965 km: Mendi bizkarra eta Aldudetik igotzen den pista, eskuinetik (H.>). Ezkerretik segi (I.E.>) eta, metro gutxira, “119” Espainia-Frantzia estatuen arteko mugarrria. Pagadian behera.

6,645 km: BERDERITZKO LEPOA (690 mt), zabal eta belartsua, bi bailaren arteko komunikabide historikoa; ondoan, “117” mugarrria. Ezkerreko bide zabaletik jeitsi (I.>), iraleku eta larretan barna; 500 mt aurrerago, basoan sartuta, ezkerretik bide bat elkartzen da.

7,595 km: Urruska Landa Etxea (645 mt), mendi magalean eta belagiz inguraturik. Haren gaineko bidetik berriz pagadian sartu eta erreka zoko bat zeharkatu.

8,370 km: Mizpirako lepoa (700 mt); iralekua. Bifurkazioa: ezkerretik (I.M.>), Beartzunera. Zuzen segi (I.>) magaleko bidexkatik altuera mantenduz. Pagadi txiki bat pasa otea nagusi.

9,205 km: BASABARKO LEPOA (688 mt), ar diborda baten ondotik pasa eta gero; Beartzundik Iñarbegirako pistak zeharkatua. Hainbat bideren elkargunea: eskuinetik (H.E.>), Munautzeko bidea (SL-NA Basabar); mendi bizkarra segituz (I.>), Burgara (SL-NA Basabar, deribazioa); ezkerretik (M.>), pistaren azpitik, Beartzungo bide zaharra (SL-NA Basabar). Ezkerreko pista segi (I.M.>), Beartzun aldera eta haritz batzuen artean; 100 mt aurrerago eskuineko bidexkatik jo, Burga mendiaren magaletik, larre eta oteen artean eta ibilbidearen ikuspegi ederrarekin.

10,630 km: Pagadia, 200 mtan zehar, magal honetan babesgune bakarra.

11,270 km: Irlintzi-Goisemetseko lepoa (645 mt), harresiz mugaturiko belagian. Bidegurutzeara: eskuinetik (I.>), paretan artean, Elizondora. Ezkerretik 100 mt jeitsi (I.M.>), pareta eskuinean utziz eta larretan barna, Beartzundik igotzen den pistara ailegatu arte. Bertatik jeitsi (H.E.>).

11,780 km: Gamioko B^a Landa Etxea (570 mt). Bertara iritsi aurretik, eskuineko bidexkatik jeitsi (M.>); hasieran oso malda pikua, gero apaltzen da. Iratzea eta otea nagusi.

12,680 km: Maisterrenea etxea; 100 metro lehenago eskuinetik bertze bide bat elkartu ondoren. Etxera iristen den bide zabal eta zelaitik segi.

13,050 km: BEARTZUN, Alka baserria (485 mt), zelaigune belartsua, aparkaleku modura. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.

SL-NA 11 ELIZONDOA

I.I.D.E.:

Elizondo– Lekaroz ikastetxea – Irurita – Aitzano – Gartzain - Ariztegi - Elizondo

Luzeera: 8,430 km

Desnibela: 150 mt

Zailtasuna: ERREZA

Elizondoa koarteleko (Baztango eskualde tradizionala, Erberera, Basaburua eta Baztangoizarekin batera) ibilaldia, hainbat herri eta auzotan barrena. Bide errexak, batzutan asfaltatuak, eta belagi zabalen artean. Arkitektura zibil eta erlijiosoaren adierazle, hainbat jauregi-dorre eta nekazal etxalde eder, eta herriko elizak bidean zehar agertzen dira. Ibilbidea osatzeko Elizondoko Purosenea etxeko “Jorge Oteiza” Etnografia Museoa bisitatzen ahal da.

IRTEERA > Elizondo, Foru Plaza (Baztango Udal Etxea eta kioskoa), N-121 B errepidearen ondoan. Herrian hainbat ostatu, jatetxe eta alojamendu badago.

OHARRAK

- Lekarozko Institutotik Irurita herrirainoko tartean NA-4403 errepidetik ibili behar da, arzenik gabe.
- Ibilbidearen hasieran Santiagoko Bideko seinalizazioa (gezi horiak) eta GR-11arena (txuri gorriak) aurkituko ditugu; erne ibili.
- Elizondoko sarrera Saskaitz iturritik bidexka batetik egiten da, euria edo eguraldi txarrarekin lohitsuia izaten ahal dena.

DESKRIBAPENA

0,000 km: ELIZONDO (200 mt), Foru Plazatik Karrika Nagusian barna; 250 mt geroxeago, Txokotoko zubian Baztan erreka zeharkatu eta ezkerredera egin, erreka baxterretik (B. Iriarte karrika). Tarte honetan Purosenea etxeko “Jorge Oteiza” Etnografia Museoa ondotik pasatuko da.

0,505 km: Bidegurutzeta. Eskuinetik (I.M.>) GR 11 ibilbidea. Zuzen segi (H.M.>), B. Iriarte karrikatik eta eraikuntza berrien artean. Ia 500 mt aurrerago herrigunea bukatu eta, bide zabaletik, “pausutxar” zeharkatu (bi harlauzek zutik pasua mugatzen duten lekua).

1,040 km: Bide asfaltatuarekin bat, eskuinetik, Elizondotik datorrena

1,620 km: Lekarozko D.B.H. Institutoa eta NA-4403 errepidea. Haren baxterretik segitu, metro batzuek aurrerago kisulabe baten ondotik pasatuz (kare edo kisu bizia egiteko labea); 330 mt aurrerago, Lekarozko herriko bidegurutzetan, ezkerreko errepidetik segi (M.>).

2,590 km: Arrazkazan auzoko bidegurutzeta (185 mt). Zuzen segi eta Baztan erreka zeharkatu; 200 mt aurrerago, Abere Hiltegiaren, Bidasoako Trenbidea (“Tren Txikito”) zena zeharkatu.

3,460 km: IRURITA (210 mt), Herriko Plaza, etxe dotorez inguratua. N-121 B errepidea zeharkatu eta bifurkazioa: eskuinetik (H.>) Santiagoko Bidea (Eugi eta Zigako NA-174 errepidea); ezkerretik segi (H.E.>), San Salvatore herriko elizaren aintzinetik. Karrika nagusia mantendu eta 250 mt aurrerago, azkeneko etxeetan, zementozko malda pikua hasiko da.

3,790 km: Bifurkazioa. Ur biltegira doan bide zementatua utzi eta ezkerreko bidetik zuzen segi, belagietan barna. Ibilbidearen ikuspegi zabala.

4,125 km: Lepo txikia (250 mt) eta bidegurutzeta. Ezkerretik segi (E.>), harresiek mugatutako bide zabal eta zelaian barna.

4,800 km: Aizano Auzoa, ia 100 mt lehenago labadero ondotik pasa eta gero; etxalde haundi eta ederrak. Iturria eta aska, eta bidegurutzeta: eskuinetik, Ezkaldora igotzen den bidea; ezkerretik jeitsi (I.>), NA-2594 errepidetik.

5,190 km: GARTZAIN (235 mt), frontoia, eliza, eskola eta etxe bakan batzuek osaturiko herrigunea; iturria. Errepidetik segi, herritik ateratzen.

5,320 km: Bifurkazioa. NA-2594 errepidea utzi eta eskuineko bide kaltzadatik jeitsi (E.>), harresi eta hurritzen artean eta erreka zoko ozpelean barna, ia 500 mt aurrerago zeharkatu behar dena. Tarte zelaia egin eta gero, Ariztegiko lehenengo etxeak agertzen dira.

6,230 km: Ariztegi auzoa (205 mt), etxe sakabanatuak. Pilarika ermita eta bidegurutzeta: ezker eta eskuineko bideak utzi eta ermitaren ezkerretik segi (I.E.>), etxe ederren artean; 100 mt eta gero zuzen segi, mendian gora doan zemantuzko pistatik auzotik ateratzen.

6,875 km: Bifurkazioa, mendi bizkarrean (270 mt). Pista nagusia utzi eta ezkerreko jo, belagien arteko bide zelaitik; 250 mt aurrerago, eskuinera jo, basoan sartu eta bidexkatik jeitsi.

7,295 km: Bide zabala eta Elizondoko lehenengo etxe sakabanatuak. Jeitsiera basoan barna; 200 mt aurrerago, eskuinean, Saskaitz iturria. Elizondoko herrigunea eta Lanbide Eskola.

8,240 km: Etxaide auzoko bide asfaltatua eta GR-11 ibilbidearen pasagunea. Ezkerreko jo eta Santiagoko eliza aurreko plaza zeharkatu.

8,430 km: ELIZONDO (200 mt). Foru Plaza (Baztango Udal Etxea eta kioskoa). Ibilbidearen hasiera eta bukaera.

SL-NA ELORRIETA

I.I.D.E.: _____.

Izpegi – Olate – Nekaitz – Elorrieta – Nekaitz - Izpegi

Luzeera: 6,250 km

Desnibela: 300 mt

Zailtasuna: ERTAINA

Elorrietako lepora ibilbidea, Auza mendiko magalean, bertako gunee megalitikoak (harrespilak, gehien bat) bisitatuz. Bidexkatik igoera aldapatsu ondoren, Olateko bizkarreko ikuspegi zabalak gozatuko ditugu. Nekaitz eta Elorrieta lepoen arteko tartea eremu zabala eta belartsua zeharkatu, udan hainbat aziendaren bazkaleku. Itzulian, Olateko hamildegiko bidexkatik, ohian eder eta basa ikusi ahal izanen dugu.

ABIAPUNTUA > Izpegiko Gaina (670 mt), Erratzu-Baigorri NA-2600 errepidean; bertan badira 2 ostatu –benta eta aparkaleku zabala.

OHARRAK

- Ibilbideak 150 mtako tarte zaila du (5,625 km-an, Olateko hamildegian), eguraldi txarrarekin oso irristakorra era arriskutsua suertatzen ahal dena. Arren, abiatu aurretik, zihurtatu haren egoera.
- Xorilepo-Elorrietako lepoan, hainbat ibilbide balizatu elkartzen da. Halaxe, bertan Auza mendiko igoera hasten da. Erne seinalizazioari.

DESKRIBAPENA

0,000 km: IZPEGIKO GAINA, aparkalekua. “Izpegiko Benta”ren gibeletik Olate mendiko magaletik (mendebaldekoa) bide zabala, basoan sartzen dena.

0,220 km: Ur biltegia, Izpegiko bentak hornitzekoa. Bidea bidexka bihurtu eta basotik ateratzen da; igoera pikua mendi magaletik eta iralekuetan barna. Harritzar ikusgarriak eta Baztangoiza (Baztango “koartela”: Erratzu, Arizkun, Azpilkueta eta Amaiur herriek osatua), Auza mendia eta Gorramendiko ikuspegi ederrak.

1,050 km: OLATEKO BIZKARRA (830 mt) eta igoera pikua bukaera. Eskuinetik (H.>) segi, ehizi postuen ondotik. Pagadian sartuta, 150 metro geroxeago, Olateko lepoa pasa; harritzar ikusgarriak.

1,650 km: OLATEKO ATEA (900 mt), basoan barna igo eta gero. Ibilbidearen punturik altuena. “Atea” harrian eskuz zabalduriko atea edo pausua da. Nekaitz, Elorrieta-Xorilepo eta Auza mendiko ikuspegi zabalak. Inguru honetan burni mineral ugari, aspaldiko hustirapenaren lekuko. Mendi larreko bidexkan barna jeitsi (H.M.>).

2,060 km: NEKAITZEKO LEPOA (814 mt), zabal eta belartsua. Harresi eroria eta bidegurutzak: ezkerretik, Izpegirako bidea, Olateko hamildegitik (itzultzeko bidea); zuzenean, mendian gora, Nekaitzeko harrespilera. Esquinera jo (M.>), harresiaren ondotik eta lizardi batean dagoen borda erori baten ondotik pasatuz. Bide zelai eta zabala.

2,440 km: Eskuinean, Erratzuko bidearen konfluentzia eta Bordazar ardi borda, harresi baten barruan. Zuzen segi, bide zabaletik, erreka gurutzatuz. Malda labur eta pikua egin ondoren, pista eta bifurkazioa: eskuinetik, borda batera; ezkerretik igo, azken 65 mt eginez.

2,750 km: XORILEPO-ELORRIETAKO LEPOA (830 mt), zabal eta belartsua; bertan Bankatik datorren bide asfaltatua. Bidegurutzeta: eskuinetik (M.>), Auza mendiko igoera pikua eta Banka-Baigorri ibilbide balizatua (asfaltatua); zuzenean (H.>), Bankako bide asfaltatua. Ibilbidea segitzeko ezkerrean jo (E.>), mendi bizkarretik, ibilgailuen markak segituz.

2,825 km: Bideak ELORRIETAKO GUNE MEGALITIKOA gurutzatzen du; trikuharri batek (*IKUS: 235. fitxa*), bidearen ezkerrean, eta 21 harrespilek (*IKUS: 236-253 fitxak*), gehienak eta ikusgarrienak eskuinean, osaturiko multzo ikusgarria.

3,050 km: Mendi bizkarraren norabidea utzi eta ezkerretara (I.>) igo, Elorregiko kaskoaren magaletik eta beti ere Espainia eta Frantzia estatuen mugariak eskuinean utzita.

3,290 km: Aska eta ur biltegia, eskuinean. Mendi bizkarretik berriz, 50 mt aurrerago Nekaitzeko harrespila (*IKUS: 231 fitxa*) eta "99" mugaria (860 mt). Bizkarretik eta mendi larretan jeitsi.

3,770 km: NEKAITZEKO LEPOA (814 mt), zabal eta belartsua. Harresi eroria eta bidea gurutzeta: zuzen, Olateko bizkarrera (etortzeko bidea); ezkerretik, Elorrietako lepora. Eskuinera jo (E.>), ehizi postuen ondotik jeitsi. Bidexka argia.

4,350 km: Bidea pagadian sartzen da, Olateko magaletik, zelai zelai. Tarte honetan hainbat burni arrasto ikusgai.

5,055 km: Eskuinean, harri zorrotza, Olateko hamildegi ikusgarria erakusten duena. Gora behera batzuekin, bideak zuzen segitzen du.

5,625 km: Bidearen zigi-zaga, 150 mtako tartean. Harri solteak eta irristatzeko arriskua.

5,905 km: Egurrezko gurutzeta; 100 mt geroxeago, basotik atera eta iralekutik segi. Eskuinetik, Baigorriara jeisten den bidea utziko da.

6,250 km: Malda txiki bat eta gero, IZPEGIKO GAINA (670 mt). Aparkalekua; ibilbidearen hasiera eta bukaera.

SL-NA GAZTELU ZOKOA

I.I.D.E.:

Amaiur – Gaztelu zokoa (errotako presa) - Amaiur

Luzeera: 1,450 km

Desnibela: 50 mt

Zailtasuna: ERREZA

Gaztelua mendiko erreka zokora ibilaldi erreza, Amaiurko errota hornitzen duten ubide eta presa-urtegiaren barrena. Honekin batera, herriko goiko aldean eta El Pilar ermitatik abiatuta, Gaztelua mendian dagoen monolitoa bisitatzen ahal da: bertan 1521 urtean Nafarroako Erresumaren Gaztelak egindako inbasioaren azken gotorlekua izan zen gazteluaren hondakinak (egun indusketa egoeran) aurkitzen dira. Ibilbidea herriko errotako bisita gidatuarekin osatzen ahal da.

ABIAPUNTUA > Amaiur, herriko sarreran. Eliza eta errota; aparkalekua eta iturria. Herrian bada ostatua eta hainbat alojamendu.

OHARRAK

- Ibilbidearen lehenengo 225 mtan Santiagoko Bidearekin bat egiten da (Baiona-Iruñea adarra, Belaten barna). Ibilbide hau gezi horiekin baliztatua dago.
- Eguraldi txarrarekin, Gaztelu zokoko tartea irristakorra izaten ahal da.

DESKRIBAPENA

0,000 km: AMAIUR (285 mt), herriko beheko aldea; errota. Elizaren ondotik gurutze batetara igo, bertaraino PR-NA 4 Baztangoiza ibilbidearekin koinzidituz. Puntu honetan PR utzi eta ezkerrean jo, Karrika Nagusian gora eta arku baten azpitik pasatuz; tarte honetan Santiagoko Bidearekin bat egiten da (Baiona-Iruñea), kontrako zentzuan.

0,225 km: Zizkainea etxea, jauregi itxurakoa. Karrika Nagusia utzi eta ezkerreko bide zabaletik jo, herrigunetik ateratzen.

0,330 km: Ikuilua, ezkerrean. Bide zabala utzi eta eskuineko bidexkatik segi, alanbrezko itxituraren ondotik eta basoan sartuz. Gaztelu mendiko magal ospela, ezpela eta hurritza ugari. Metro gutxitara herriko errota hornitzen duen kanala edo ubidera ailegatu; haren ondotik segi.

0,715 km: Araneko erreka, Bidasoaren iturburuetakoa bat, eta zementozko zubia. Haren gainean, 10 metrora, errotako presa. Hezetasun haundiko lekua, mendi magalean eta erreka ondoan. Bide beretik itzuli.

1,450 km: AMAIUR (285 mt), herriko beheko aldea; errota eta eliza. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.

SL-NA IBAINETA

I.I.D.E.: _____.

Urbiako lepoa – Ibainetako Zelaia – Telletxeko bizkarra - Urbia

Luzeera: 5,100 km

Desnibela: 125 mt

Zailtasuna: ERREZA

Kontraste haundiko ibilbidea: Airagarriko gainetik Lapurdiko kostaldea eta Orabideko bailara inguratzen duten mendiak agertuko zaikigu. Ibainetako zelaian, Atxuria mendiaren magalean, hainbat monumentu megalitikok (trikuharriak, tumuluak eta harrespilak) gizakiaren presentzia aurrehistoriatik frogatzen dute. Bukaeran, kalezada tartea konserbatzen dituen bide politan barna ibiliko gara.

IRTEERA > Urbiako lepoa, Zugarramurditik Etxalar eta Orabideko bide asfaltatuan, 3 p.k.-an; “Xareta” udalen elkarteko harrizko seinalea. Zabalgunea, aparkaleku modura; ez dago ostalaritza zerbitzurik, ezta babesgunerik ere.

OHARRAK

- Ia ibilbide osoan ez da ez bordarik ezta basoaren babesik; kontutan hartu eguzki bortitz edo euriarekin.
- Ez da komeni Ibainetako zelaia zeharkatzea; padura bat da eta maiz logia edo lokatza izaten da.
- Ibainetako erreka zeharkatzean (p.k. 3,765) harrizko zubia desagertu da, uholdeak erama. Harri ezegonkorak izaten ahal dira.
- Ibainetako lepotik Urbiako lepora PR-NA 90 Sorginen Bidea ibilbidearekin bat egiten du, bien seinalizazioak koinzidituz.

DESKRIBAPENA

0,000 km: URBIAKO GAINA (431 mt), zabala eta belartsua. Aparkaleku moduko zabalgunea eta bidegurutzeta: Zugarramurditik etorrita, ezkerretik (E.>), Loiarako pista (PR-NA 90); aurretik, errepidearen eskuinaldean (H.>), pista zabala (itzultzeko bidea eta PR-NA 90). Eskuinetik igo (M.>), Mendibil mendia inguratzen duen bidetik.

0,370 km: Bidearen bukaera eta ardi borda, harresiz inguratua. Ezkerreko harresiaren ondotik segi eta ezkerretik igo (H.M.>), bidexka eta ote haundien artean. Errekatxo baten iturburua eskuinean utzita, larretan barna igo norabidea mantenduz (H.>).

0,810 km: Airagarriko lepoa (569 mt), Baztan eta Zugarramurdiko mugan; belartsua eta harri haundiekin. Zutarri erdi etzana (*IKUS: 083 fitxa*). Eskuinetik igo (I.M.>), mendi bizkarretik

1,010 km: Tontorrera (596 mt) ailegatu baino lehen, ezkerreko bide belartsutik jeitsi (M.>), harearri eta konglomeratuen artean.

1,350 km: IBAINETAKO LEPOA (506 mt.), zabala eta belartsua. Trikuharri batek eta 16 harrespilak osaturiko gune megalitiko ikusgarria (*IKUS: 084 eta 085-100 fitxak*). Bidegurutzeta: eskuinetik (I.>), Zugarramurdira (PR-NA 90); ezkerretik (H.>), Ibainetako zelaia (padura).

Zuzen segi (H.M.>), bide garbi eta zelaian barna (Etxalarko bide zaharra), PR-NA 90 ibilbidearekin bat eginez eta eskuinean Atxuria-Peña Platako igoera utziz.

2,010 km: Bidegurutzea: zuzen (M.>), Etxalarrera; eskuinetik (I.>), Atxuriko igoera. Ezkerrera jo (H.>), Ibainetako zelaigunea inguratzen duen bizkarretik, iralekuan barnako bidexkatik. Ehun metro aurrerago, Sorohaundiko trikuharria (*IKUS: 101 fitxa*), eskuinetik, 30 mt-ara; bidexkara itzuli eta bizkarretik segi, pinu zahar haundien artean pasatuz.

2,250 km: Norabide aldaketa (E.>), mendi bizkarra mantenduz. Pinaditik atera eta bunker baten ondotik pasa. Malda behera apala.

2,475 km: Telletxeko bizkarreko guneko megalitikoak, 3 harrespilek eta 4 tumuluek osaturik (*IKUS: 103-109 fitxak*), iralekuak hartutako zelaian eta pinaditik gertu. Ia 200 mt aurrerago, harriztar haundi baten aurrean, mendi bizkarra utzi eta eskuineko jeitsi bidexkatik (H.E.>).

2,750 km: Lapitzeko borda (490 mt.), bidearen azpian. Haritz eta pago zaharrak; ezkerrera jo eta berriz bizkarrera igo, bidexka argitik. Ehun metro geroxeago, eta 25 mt ezkerrean, harrespila (*IKUS: 110 fitxa*). Bidera itzuli eta bizkarretik segi, harresi batetara ailegatu arte: Ibainetako zelaira jeisten den bide nagusia utzi eta eskuinetik segi, paretaren ondotik; honen bukaeran, bizkarreko norabidea mantendu eta bidexka batetik errekarara jeitsi, ote artean.

3,175 km: Ibainetako erreka. Haritza eta bidegurutzea: ezkerretik (M.>), Ibainetara. Eskuinera jo (H.>), erreka berriz zeharkatu eta hondatutako bidetik jeitsi, erreka zokoaren gainetik.

3,375 km: Palaziokoborda eta bide zabala, metro batzuek beherago ezkerrera jotzen duena.

3,610 km: Bidegurutzea, luberri baten ondoan. Eskuineko pista zabala utzi eta zuzen segi (E.>), kaltzada arrastoa duen bidexkatik (Obeneako errotako bide zaharra).

3,765 km: Ibainetako erreka (410 mt); harlauzezko zubiak zeharkatzen zuen, 2007ko uholdeek eraman arte. Harri ezegonkorak, kontu haundiz ibili. Bideak haritz zaharretan barna segitzen du, Mendibil mendia hego magaletik inguratuz; Orabidea bailarako ikuspegi ederrak.

4,775 km: Borda berritua azpitik inguratu eta gero, pistak bide zaharra ordezkatzeko du.

5,100 km: URBIAKO GAINA (431 mt), zabala eta belartsua. Aparkaleku moduko zabalgunea. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.

SL-NA 13 INFERNUKO ERROTA

Orabidea (Irigoiengo borda) – Etxebertzea – Infernuko errota – Irigoiengo borda

Luzeera: 5,100 km

Desnibela: 125 mt

Zailtasuna: ERREZA

Orabidea Baztango Ipar Mendebaldean kokaturiko eremu zabala da, Legate eta Alkurruntz mendien magalean, Etxalar, Zugarramurdi eta Urdazubiko mugetan. Inguru ospela eta ohiana nagusi, hainbat baserri sakabanatu han hemenka ageri da, ongi zaindutako belagiez inguraturik eta abeltzantzari lotutako bizimoduari eutsiz. Mendetako isolamenduaren lekuko, Infernuko Errota ikusgarria erreka zokoaren gainean eraikia agertzen zaigu.

IRTEERA > Irigoiengo Borda baserriko bidegurutzea, Orabideako errepidearen 15 p.k.-an, Elbetetik (Bagordi), Arraiozko harrobitik, Otsondotik, Etxalartik eta Zugarramurditik errepide hestuetatik “Etxebertzeko Borda Jatetxea” norabidea segituz. Aparkaleku moduko zabalgunea eta baserrirako bidea. Ez dago ostalaritza zerbitzurik (gertuena, 1 km-ra, Etxebertzeko B^a-an).

OHARRAK

- Eguraldi bustiarekin errotako sarrera eta inguru oso irristakorra suertatzen ahal da.
- Errotatik bada Etxalarko Orizki auzoraino segitzea, SL-NA 13 ibilbidea segituz (ikus bukaeran “Etxalarko lotura”)

DESKRIBAPENA

0,000 km: IRIGOIENGO B^a BASERRIA, errepideko bidegurutzea (520 mt). Bide zabaletik 50 mt egin eta, baserrira iritsi gabe, gaineko bizkarretik abiatu (M.>). Iralekuan barnako bidexkatik malda behera pikua.

0,525 km: Konfluentzia baserritik datorren bidearekin. Bertatik jeitsi, eskuinera (I.>), erreka zokoruntz; 300 mt aurrerago Antxitoneko ardibordaren ondoan pasa.

1,310 km: ETXEBERTZEKO BORDA jatetxea (370 mt), bertan hazten diren amuarraiengatik ospetsua. Errekaren eskuinaldeko bide zabaletik zuzen segi, baserriko belagiak zeharkatu eta basoan sartu, haritz eta gaztainondo zaharrak nagusi.

1,775 km: Egurrezko zubitxo, eskuinetik datorren erreka zeharkatzeko, eta igoera txikia. Bidexka beti erreka zokoaren gainetik doala, bailara hestutzen da, gero eta ospelagoa. Pagadia nagusi, haltza eta gaztainondo zahar ugari.

2,475 km: Egurrezko zubitxo zeharkatu eta bidegurutzea: eskuinetik (I.M.>), Etxalarrera (SL-NA 13, ikus bukaeran, “Etxalarko lotura”); zuzen segi (M.>), ezkerrean zubi bat utziz.

2,550 km: INFERNUKO ERROTA (325 mt), harrizko eskailera irristakor batzu jeitsi eta gero. Errekaren gainean eraikia, Baztan eta Etxalarko mukan, berriki moldatua izan da, lehengo tekniken arabera, eta tarteka arto jotzen dute. Inguru ospel eta heze honetan kontu haundiz ibili behar da. Itzulia bide beretik.

5,100 km: IRIGOIENGO B^a baserria (520 mt) eta errepidea. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.

ETXALARKO LOTURA

SL-NA 13 ibilbidea segituz, eta 5 km-ko bidean barna, Etxalarko Orizki auzoko baserrietara iristen da. Horretarako atzera egin, errotara ailegatu baino 75 mt lehenagoko bidegurutzera.

2,475 km: Bidegurutzea; ezkerretik (M.>), errotara; eskuinetik igo (I.M.>), errotaren gainetik. Bidea zabaldu eta pinadi bat zeharkatzen du, erreka zokoa gaingituz.

3,950 km: Tarte zelai luze baten ondotik, eskuineko iralekutik jeisten den bidearekin bat egin. Bertatik jeitsi, gertu dagoen baserrira.

4,190 km: Baltanen B^a baserria (380 mt) edo Baztanen B^a, basoaren erdian eta belagiek, ardi bordak eta iralekuek inguraturik. Bide zabala eta eroso hasten da, pagadian barna, tarteka gaztainondo zaharren motzondo ikusgarriak ageri direlarik.

6,650 km: Ezkerretik datorren bidearekin bat egin ondoren, Altxata erreka (315 mt) zeharkatu y pista zabaletik igo. Zabortegi baten ondotik pasa eta basotik atera.

7,700 km: ORIZKI AUZOA (390 mt), Etxalartik Zugarramurdirako bideko 3. km-an, eskuinean aparkaleku moduko zabalgunea, babesik gabea. Ostalaritza zerbitzurik ez.

PR-NA 7 IÑARBEGI

I.I.D.E.:

Erratzu – Gorostapolo – Iñarbegi – Zubipunta – Gorostapolo - Erratzu

Luzeera: 14,025 km

Desnibela: 400 mt

Zailtasuna: ERTAINA

Iñarbegiko erreka Baztan-Bidasoaren iturburuetako bat da. Kontraste haundiko ibilbide honetan igoera Auza mendi magaleko kaltzadatik eta erreka alde ozpel eta hezetik egiten da eta jeitsiera, aldiz, ikuspegi ederrak eskeintzen dituen bide zabaletik. Iñarbegi auzoan, nekazal paisaia disfrutatzeaz gain, bi trikuharri ikusiko dugu: Sorginetxea, bidearen ondoan, eta Aznabazterra, bidetik 600 mtako deribazio bat eginez.

IRTEERA >: Erratzu, herriko plaza eta aparkaleku moduko zabalgunea, frontoiaren ondoan. Herrian hainbat ostatu, jatetxe eta alojamentu badago.

OHARRAK

- Gorostapoloko NA-2651 errepidean aparkatzea mugatua dago. Erabili Erratzuko aparkalekuak.
- Iñarbegi eta Gorostapolo arteko harrizko kaltzada inguru ozpeletik doa eta oso irristakorra suertatzen ahal da. Igoera bertatik egitea aholkatzen da.
- Hasierako tartean PR-NA 7 eta SL-NA 12 ibilbideek koinziditzen dute; erne ibili seinalizazioarekin.

DESKRIBAPENA

0,000 km: ERRATZU (290 mt), herriko ostatu eta plaza. Gorostapoloko NA-2651 errepideko zubitik Baztan erreka zeharkatu, San Pedro eliza ondotik; 250 mt aurrerago, herriko eskola pasa ondoren, errepidetik segitu, eskuinean kanposantuko eta Arizkungo bidea utziz.

0,650 km: Behitegia eta bifurkazioa: eskuinetik, bertze ikuilu batetara doan bidea (itzultzeko bidea). Errepidetik zuzen segi, harresiz mugatutako belagien artean.

1,565 km: GOROSTAPOLO AUZOA (350 mt), Doloretako Amabirjinaren ermita. Auzoan sartu gabe, ermitaren atzetik jeitsi (H.>), harrizko kaltzadatik.

1,900 km: Iñarbegiko erreka harrizko zubia (325 mt) eta 50 mt aurrerago, bidegurutzeta: ezkerretik (E.>), Iñarbiler (SL-NA 12-aren itzultzeko bidea). Zuzen igo (H.>), kaltzadan gora.

2,105 km: Errekatxoa pasa eta bifurkazioa: eskuinetik (H.M.>), Xorroxin urjauzira bide zelaia (SL-NA 12); zuzen igo (H.>), hurrirtza eta gaztainondoaren arteko bide zabaletik.

2,575 km: Bide zabala ezkerrean utzi eta eskuinetik segi, bidexka zelai eta haritzetan barna. Iñarbegiko bide zaharra da, tarteka kaltzatua, mendi magaletik eta hainbat borda eta belagitan barna igotzen dena.

3,860 km: Erreka bat zeharkatu, inguru ozpel eta hezea.

4,805 km: Iñarbegiko bide asfaltatua. Bertatik igo, norabidea mantenduz (H.>).

5,600 km: Bide asfaltatua utzi eta ezkerretik 65 mt igo: LEPIÑERREKO BORDA (605 mt) eta Sorginetxea trikuharria (*IKUS: 262 fitxa*). Iñarbegiko bailarako ikuspegia. Bordaren belagiaren harresi ondoko bidexkatik jeitsi (H.>).

5,750 km: Bide zelai zementatua; ezkerretik segi (E.>), Iñarbegiko baserri sakabanatu eta haritz zaharretan barna. Handik 250 mt-ra, bifurkazioan, bide zementatua utzi (bertatik Xenperenea Landa Etxera) eta ezkerreko bide zabaletik igo, ur biltegi baten ondoan pasatuz.

6,215 km: Bifurkazioa: ezkerretik, Aznabazterra trikuharrira (*IKUS: 263 fitxa*), 600 mtko deribazioa piketakin balizatua. Eskuinetik jeitsi, bailarako ikuspegi zabalekin.

6,440 km: Agerrea baserriko ikuilu handia; norabide aldaketa: eskuinera jo (M.>), Iñarbegi auzoko bide zementatutik. Marimartinen B^a baserria pasa eta 50 mtara bide nagusia utzi eta ezkerretik jeitsi, harresien arteko bidexkatik.

6,690 km: Iñarbegiko errepidea eta Dorreko borda baserria. Asfaltua gurutzatu eta etxearen atzetik lurrezko bide zabaletik jeitsi, norabidea mantenduz (M.>); 200 mt aurrerago, bide asfaltatuarekin bat egin eta bertatik segi.

7,050 km: Bihurgune itxia. Asfaltoa utzi eta eskuineko bide zabaletik jeitsi (I.M.>).

7,425 km: Axerixuloetako zubia (495 mt). Iñarbegiko erreka zeharkatu eta pixkanaka igo, ardi borda eta harresiz mugatutako belagietan barnako bidetik.

8,380 km: Iñarreko borda, eskuinean, errekatxo bat pasa eta gero. Bide zelai eta eroso, baso gutxiko magaletik, Auza mendi eta Xorroxingo zokoaren ikuspegi ederrekin.

9,300 km: Bidegurutzeta (545 mt), Zubipunta baserriaren parean. Eskuinetik, Gorostapolora; ezkerretik segi (M.>), erreka zokoa saihesteko bihurgune haundia egiten duen bide zelaitik. Bizkar bat zeharkatu eta malda behera hasiko da.

10,705 km: Ezkerretik bide bat elkartu eta 50 mt-ra, bifurkazioa: eskuinetik jeitsi, iralekuko bidetik. Ia 500 mt aurrerago, Mariskoneko bordaren ondoan pasa, baso txiki batean.

11,695 km: Lepoa (460 mt) eta bifurkazioa: eskuinetik (I.E.), Gorostapoloko bidea; zuzen jeitsi (I.>), norabidea mantenduz.

12,135 km: Hiru bidegurutze segidan. Ezkerretik Arizkungo bidea eta metro gutxitara, eskuinetik, Gorostapolotik datozen bi bide. Zuzen segi (I.>).

12,500 km: Etxeberriko borda eta aurrerago, behitegia, ezkerrean. Haren ondotik pasa eta harizti txiki bat zeharkatu. Ia 500 mt aurrerago, bertze behitegi baten aurrean, eskuinera egin eta errepide aldera jeitsi.

13,330 km: NA-2651 errepidea eta behitegia; ibilbidearen hasierarekin elkartzen da (0,650 km). Errepidetik jeitsi, eskolatik herrigunean sartuz.

14,010 km: ERRATZU (290 mt), herriko ostatua eta plaza. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.

PR-NA 90 SORGINEN BIDEA

I.I.D.E.:

Zugarramurdi – Ibainetako Zelaia – Urbia –Loiara – Argindoieta - Zugarramurdi

Luzeera: 13,010 km

Desnibela: 350 mt

Zailtasuna: ERTAINA

Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubiko mugetan barna, Atxuria eta Azkar mendiak elkartzen dituzten bizkar eta lepoetatik. Etxalarko bide zaharretik Ibainetako zelaira (padura) igo, inguruko hainbat monumentu megalitiko bisitatuz (ikus SL-NA Ibaineta). Urbiako lepoan bide zabalak bidexka ordezkutzen du, Orabidea bailarako ikuspegi ederrak eskeiniz. Azkeneko tartean, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako lezeak elkartzen dituen bidean barna egiten da.

IRTEERA > Zugarramurdi, herriko plaza. Aparkalekua, forntoi ondoan. Herrian denda, ostatu eta hainbat alojamendu badago.

OHARRAK

- Ez da komeni Ibainetako zelaia zeharkatzea; padura bat da eta maiz logia edo lokatza izaten da.
- Ibainetako erreka zeharkatzean (p.k. 3,765) harrizko zubia desagertu da, uholdeak erama. Harri ezegonkorak izaten ahal dira.
- Hainbat ibilbide balizaturekin bat egiten da: Ibainetatik Urbiara, Azkar eta Argindoieta mendien inguruan eta “Lezeetako Bidea” bukaeran. Denak SL txuri-berdez balizatuak badaude ere, erne ibili seinalizazioarekin.

DESKRIBAPENA

0,000 km: ZUGARRAMURDI (210 mt), herriko plaza. Elizeko karrika aldapatsuan gora (H.>) igo, “Etxalar” seinalizatua; 175 mt aurrerago, informazio panelaren ondoan, Etxalarko bide aldapatsua utzi eta eskuinetik segi, kanposantuko bide zabal eta asfaltatutik.

0,380 km: Kanposantua pasa eta gero, bifurkazioa. Eskuineko bide asfaltatua utzi (Sarako Lezeetara doana) eta ezkerreko bide zabaletik igo (H.M.>), Uraundiko edo Infernuko errekan barna (metro batzu beherago Akelarreako lezea zeharkatzen duena).

0,810 km: Barrakoi hondatuak eta bifurkazioa; eskuinetik igo. Bidea hestutu eta 300 mtan zehar zigi-zaga egiten du, erreka zokotik atera arte. Mendi magaleko tartea hasten da, ia basorik gabea eta Xaretako (Sara, Zugarramurdi, Urdazubi eta Ainhoa udalerriak) ikuspegi zabalekin.

1,685 km: Tarte batez oteak bide zaharra hartu eta ondoko bidexkatik igo behar da, norabidea mantenduz (H.M.>).

2,060 km: Erreka pasa eta pista zementatua, Zugarramurditik datorrena. Bertatik igo, ezkerretik (H.E.>) eta berriz erreka zeharkatuz. Ia 150 mt aurrerago, Gaineko borda txaleta: zementuzko bidea bukatu eta eskuinetik igo (H.M.>), erreka ondotik, hasieran bide zabal eta gero kaltzada arrastoa duen bidetik. Alertzeen basoan sartu; hainbat errekatxoren iturburu.

2,700 km: IBAINETAKO LEPOA (506 mt.), basotik atera eta gero. Trikuharri batek eta 16 harrespilek osaturiko gunee megalitiko ikusgarria (*IKUS: 084 eta 085-100 fitxak*). Bidegurutzea: ezkerretik (E.>), Urbiako lepora (SL-NA Ibaineta); aurretik (H.>), Ibainetako zelaiak (padura). Eskuin alderuntz segitu (H.M.>), bide garbi eta zelaian barna (Etxalarko bide zaharra), SL-NA Ibaineta ibilbidearekin bat eginez eta eskuinean Atxuria-Peña Platako igoera utziz.

3,360 km: Bidegurutzea: zuzen (M.>), Etxalarrera; eskuinetik (I.>), Atxuriko igoera. Ezkerrera jo (H.>), Ibainetako zelaigunea inguratzen duen bizkarretik, iralekuan barnako bidexkatik. Ehun metro aurrerago, Sorohaundiko trikuharria (*IKUS: 101 fitxa*), eskuinetik, 30 mt-ara; bidexkara itzuli eta bizkarretik segi, pinu zahar haundien artean pasatuz.

3,600 km: Norabide aldaketa (E.>), mendi bizkarra mantenduz. Pinaditik atera eta bunker baten ondotik pasa. Malda behera apala.

3,825 km: Telletzeko bizkarreko gunee megalitikoa, 3 harrespilek eta 4 tumuluek osaturik (*IKUS: 103-109 fitxak*), iralekuak hartutako zelaian eta pinaditik gertu. Ia 200 mt aurrerago, harriztar haundi baten aurrean, mendi bizkarra utzi eta eskuineko jeitsi bidexkatik (H.E.>).

4,100 km: Lapitzeko borda (490 mt.), bidearen azpian. Haritz eta pago zaharrak; ezkerrera jo eta berriz bizkarrera igo, bidexka argitik. Ehun metro geroxeago, eta 25 mt ezkerrean, harrespila (*IKUS: 110 fitxa*). Bidera itzuli eta bizkarretik segi, harresi batetara ailegatu arte: Ibainetako zelaira jeisten den bide nagusia utzi eta eskuinetik segi, paretaren ondotik; honen bukaeran, bizkarreko norabidea mantendu eta bidexka batetik errekarra jeitsi, ote artean.

4,525 km: Ibainetako erreka. Haritza eta bidegurutzea: ezkerretik (M.>), Ibainetara. Eskuinera jo (H.>), erreka berriz zeharkatu eta hondatutako bidetik jeitsi, erreka zokoaren gainetik.

4,725 km: Palaziokoborda eta bide zabala, metro batzu beherago ezkerrera jotzen duena.

4,960 km: Bidegurutzea, luberri baten ondoan. Eskuineko pista zabala utzi eta zuzen segi (E.>), kaltzada arrastoa duen bidexkatik (Obeneako errotako bide zaharra).

5,115 km: Ibainetako erreka (410 mt); harlauzezko zubiak zeharkatzen zuen, 2007ko uholdeek eraman arte. Harri ezegonkorrak, kontu haundiz ibili. Bideak haritz zaharretan barna segitzen du, Mendibil mendia hego magaletik inguratuz; Orabidea bailarako ikuspegi ederrak.

6,125 km: Borda berritua azpitik inguratu eta gero, pistak bide zaharra ordezkatzeko du.

6,450 km: URBIAKO GAINA (431 mt), zabala eta belartsua, Zugarramurditik Orabidea eta Etxalarrerako bide asfaltatuak zeharkatua. SL-NA Ibaineta ibilbidearen bukaera (informazio panela). Asfaltua zeharkatu eta aurreko pista segitu (E.>), Aizparaz mendiko hego magaletik.

7,905 km: Loiarako lepoa (440 mt), borda bat pasa ondoren. Bifurkazioa: ezkerretik (I.M.>), Zugarramurdira; pistatik segi eskuinera (E.>), tarte zelai eta pinadian barna. Ia 600 mt geroago bertze lepo bat zeharkatu (423 mt), Arburuko bordatik gertu, eta pistatik segi (H.E.>).

8,990 km: Lepoa (410 mt), Santsineneko borda ondotik pasa eta gero. Norabide aldaketa: mendi bizkarretik (E.>) Urdazubi aldera doan pista utzi eta ezkerretik jeitsi (I.>), iratze eta oteen arteko bidexkatik; 150 mt aurrerago, eskuinetik datorren bidearekin bat egin eta bertatik jeitsi.

9,310 km: Bide nagusia utzi eta eskuineko bidexka maldatsutik erreka alderuntz jeitsi, gorosti eta harizti zaharren artean; 200 mt aurrerago, eskuinetik Azkar menditik jeisten den bidexka balizatuarekin (txuri-berdez) bat egiten da.

9,680 km: Erreka (330 mt) zeharkatu eta 50 mt aurrerago, ezkerretik jeisten den bidearekin bat egin. Norabidea mantendu (I.E.>), bide zelaia otea ugari zabaldu den mendi magalean barna.

10,250 km: Ehun metroko jeitsiera pikuaeren ondotik, ARGINDOIETAKO LEPOA (295 mt) edo Argaingoieta. Bidegurutzea: eskuinetik (H.>), Urdazubira (SL-NA 17 Axular). Ezkerrera jo (I.>) eta tontorrera igotzen den pista asfaltatura iritsi. Handik berriz ezkerrera jo, asfaltutik pixka bat igotzen eta SL-arekin batera eginez.

10,660 km: Borda; ezkerreko bidexkatik laburtu, iralekuan barna (kasu: tarte honetan abereen ongarria izaten ahal da; hala bada, asfaltutik jeitsi). Berriz pistan, harizti bat eta zurgindegi baten ondotik pasatu; harlauza haundiez mugaturiko belagien arteko jeitsiera.

11,590 km: Ikuiluak eta Etxalekua baserria (gasnategia). Eskuinetik (E.>), SL-NA 17 Axular bereizten den bide zementatua; bertatik ere SL-NA 16 Lezetako Bidea elkartzen da, ibilbidearen bukaeraraino; zuzen segi (I.>), baserriaren ondotik. Bertatik 175 mt aurrerago, Zugarramurdiko NA-4401 errepidea zeharkatu eta harresien artean igo, Alkerdiko San Esteban ermita ondotik.

11,925 km: Alkerdi auzoa (175 mt), etxe ederrak. Ezkerrera jo (M.>), labaderoaren ondotik. Ehun metro aurrerago, bide nagusia utzi eta ezkerrera jo (M.>), belagien artean. Errekatxo bat zubitxo batetik zeharkatu eta hurritzen arteko igoera labur bat egin.

12,490 km: Zugarramurdiko etxe berriak eta bide zabala; 250 metro aurrerago, eta errepidera iritsi aurretik, eskuineko karrika maldatsuan barna herriko goiko aldean sartu

13,010 km: ZUGARRAMURDI (210 mt), herriko plaza. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.

SL-NA 12 XORROXIN

I.I.D.E.:

Erratzu – Gorostapolo – Xorroxin (urjauzia-purrusta) – Iñarbil – Erratzu

Luzeera: 6,350 km

Desnibela: 200 mt

Zailtasuna: ERREZA

Ibilaldi honetan Baztango hainbat kontraste aurkituko dugu: Gorostapolo eta Iñarbil auzoetan paisaia leun eta zabalean nekazal bizimoduak bizirik irauten duen bitartean, Xorroxin urjauzian erreka zokoko giro ospela, hezea eta basa aurkituko dugu. Bi mundu hauek, ordea, loturik daude: urjauzia eta bere ingurua lamiaren gordelekua da, euskal baserriko mitolojiaren pertsonai mitikoa.

IRTEERA > Erratzu, herriko plaza eta aparkaleku moduko zabalgunea, frontoiaren ondoan. Herrian hainbat ostatu, jatetxe eta alojamentu badago.

OHARRAK

- Gorostapoloko NA-2651 errepidean aparkatzea mugatua dago. Erabili Erratzuko aparkalekuak.
- Hasierako tartean SL-NA 12 eta PR-NA 7 ibilbideek koinziditzen dute; erne ibili seinalizazioarekin.
- Xorroxin urjauzira ailegatzeko erreka uholdea zeharkatu behar da, harrien gainetik. Irristakorra da eta, zenbait unetan, ur biziak izaten ahal dira.

DESKRIBAPENA

0,000 km: **ERRATZU** (290 mt), herriko ostatu eta plaza. Gorostapoloko NA-2651 errepideko zubitik Baztan erreka zeharkatu, San Pedro eliza ondotik; 250 mt aurrerago, herriko eskola pasa ondoren, errepidetik segitu, eskuinean kanposantuko eta Arizkungo bidea utziz.

0,650 km: Behitegia: eskuinetik, bertze ikuilu batetara doan bide zabala (PR-NA 7-aren itzulia). Errepidetik zuzen segi, harresiz mugatutako belagien artean.

1,565 km: **GOROSTAPOLO AUZOA** (350 mt), Doloretako Amabirjinaren ermita. Auzoan sartu gabe, ermitaren atzetik jeitsi (H.>), harrizko kaltzadatik.

1,900 km: Iñarbegiko erreka harrizko zubia (325 mt) eta 50 mt aurrerago, bidegurutzea: ezkerretik (E.>), Iñarbilera (SL-NA 12-aren itzultzeko bidea). Zuzen igo (H.>), kaltzadan gora.

2,105 km: Errekaxoa pasa eta bifurkazioa: ezkerretik (H.>), Iñarbegira (PR-NA 7), hurrirtza eta gaitzainondo artean. Eskuineko bide zelai eta zabaletik segi (H.M.>), harresi baten ondotik.

2,525 km: Zementozko zubitik erreka zeharkatu eta 130 metro aurrerago bidea utzi eta ezkerretik segi, erreka uholdean sartuz (Oharra: zubia baino lehenago bada ezkerretik bide bat Xorroxineraino, baina eremu pribatua zeharkatu behar da).

2,735 km: Iñarbegiko erreka, harrien gainetik zeharkatu behar dena. Zubitik datorren bidexkarekin bat egin eta erreka bazterretik segi.

2,800 km: XORROXIN URJAUZIA (370 mt). Higadurak sortutako 10 metrotako urjauziak putzu sakon batean isurtzen du. Inguru ozpel eta hezea, ohianak estalia eta kasik eguzkia sartzen ez dena. Etorritako bidetik itzuli behar da, berriz erreka zeharkatuz.

3,650 km: Bidegurutzea, Iñarbegiko erreka harrizko zubia baino 50 mt lehenago: etortzeko bidea ezkerrean utzi eta eskuineko bide zabaletik igo (I.E.>), basoa eta belagien mugatik.

3,850 km: Bide nagusia utzi eta eskuineko bidexka pikutik igo 100 bat metro, berriz bide zabala hartu arte. Zokotik atera eta Istilarteko borda ederra pasatu.

4,425 km: Iñarbegiko bide asfaltatua (400 mt); bertatik jeitsi, ezkerrean. Ia 350 mt aurrerago, Mendibilen borda, Iñarbilgo lehenengo baserria. Bide nagusia mantendu.

5,295 km: IÑARBIL AUZOA (370 mt), iturria eta San Gregorio ermita. Ezkerretik, NA-2652 errepidea. Bertatik jeitsi, Zozaia jauregiaren ondok pasatuz.

5,965 km: Errepidearen zii-zaga itxia, ezkerreko bidexkatik sahiesten dena; tarte kaltzatua.

6,200 km: NA-2600 errepidea; ezkerretik segi, eskuinean “Baztan” kanpina utziz. Zubia zeharkatu herrigunean sartzeko.

6,420 km: ERRATZU (290 mt), herriko plaza. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.